

Amodiozko hitzak

Bergaran, urtero-urtero antolatzen dute Amodiozko Gutunen Lehiaketa. Aste honetan, azken irabazleen berri eman dute, eta guk gazte horiek azaldutako sentimendu eta nahiak *Barkatu Amara* ekarri ditugu. Izan ere, batzuetan behintzat, amodiozko hitzek ere badituzte izen-abizenak.

jon maya

Amodiozko gutunak, normalean, bi bihotzen konplizitatearen artean geratzen dira. Inozentziaz eta irribarre txikiak egindakoak dira, lagunaren barrua ukitzeko helburu soila dutenak. Berrigara lehiaketan, ordea, lagunarena ez ezik, epaimahaiaren bihotza ere hunkitu behar da. Izan ere, hark erabakitzen

du idatzitako gutuna balekoa den ala ez, edo saria merezi duen ala ez.

Orrialde honetara bildu ditugun gutun eta mezuek badute zerbait berezia. Saria, behintzat, jaso dute, eta horrek erakusten du egi-leek beren sentimenduak islatzeko dohain berezia izan dutela.

Iñaki Serrano

1. sariaren irabazlea

Iñaki Serranok 29 urte ditu, eta eibartarra da. Zuzenbidean lizentziaduna, hirigintza-ko teknikari gisa egiten du lan. Orain biz-pahiru urte arte, asko idazten zuen. Sarritan bidaltzen zituen lanak sariketetara, eta sariak ere sarritan jasotzen zituen. Azken garaietan, aldiz, idazketa bazterrean utzia du: «Alboratuta dut, jada ez dut ia inoiz idazten». Eta saria eskuratu izanak ere ez du erabaki hori aldatuko: «Berriro ere idazten hastekotan, euskararen ezagutza gehiago sakondu beharko nuke; lanean ez dut inoiz euskaraz idazten, eta hori asko igartzen da, ikasketa prozesu bati ekin beharko nioke idazten hastekotan». Ipuina jorratu du gehienbat: «7-10 orrialde inguruko ipuinak



egin ditut gehien, sorpresazko istorioak kontatuz, beti ere umorezko kontakizunak bilatzen».

Idazle jarduna utzita badu ere, irakurlearen papera ondo baino hobeto betetzen du. Euskal literatura oso gertutik jarraitzen du, eta gaztelaniazkoari ere kasu dezente egiten dio.

Gutunaren argumentua: Tentaziotik alde egiteko eta pentsamendu gaiztoak uxatzeko, P. Axular apaizak Joanna Bordele aldeko komentu batera serora bidali zuen. Aurrez, saiatu zen errezoetan eta gogoetetan murgiltzen, baita bateko zein besteko ekintzetan buru-belarri aritzen ere, baina ezinezkoa zitzaion Joannaren irudia eta honek sorrarazten zizkion amets beroak baztertzea. Joanna urruti dela, bere kontzientzia arintzeko gutuna idazten dio.

Epaimahaiaren iritzia: «Oso ondo idatzia dagoen gutuna da, literarioki bikaina eta originala. Axularren idazkera bera erabiltzeak naturaltasuna ematen dio gutunari. Maitasuna eta sufrimendua era sinesgarrian azalduta daude. Heldutasuna nabari zaio egileari eta asko irakurri duen batek eginga behar duela igartzen da. Gutunak duen umore puntua ere eskertzekoa da.

Gorka Beobide

Sakelako telefono bidezko mezuen lehiaketaren irabazlea

25 urte ditu, azpeitiarra da, eta komertzial gisa egiten du lan. Ez duela idazteko joerarik esan digu, baina sakelakoarekin abilezia berezia duela aitortu du. «Irratian entzun nuen, hamar minutu bakarrik falta zirela mezuak bidali ahal izateko; ni autoan nindoan, eta hantxe idatzi nuen mezua», esan digu. Harritu samarra dago jasotako sariarekin, eta apur bat lotsatuta ere bai: «Izugarrizko oihartzuna izan du, dei mordoa jasotzen dut; ez dakit nik, hau dena jakinez gero...». Hala ere, ez dagoela damututa esan du, «baina bai oso *flipatuta*». Zaletasun nagusia mendia du, eta hori inoiz ez duela aldatuko dio, «are gutxiago idazten hasteagatik».

57 mezuren artean, berea izan da onena

Zuretzat;(m)imoak,(a)isia,(i)lusioa,i(t)xaropena,d(e)sioa,guzti(a)!

Epaimahaiak esandakoa: «Irabazlea aukeratzeko orduan, ez da inolako zalantzarik izan. Darabilen hitz jokoak eta mezuaren originaltasunak eman diote lehen saria mezuari.

Uxue Alberdi

2. saria eta irakurle gazteen saria



19 urte ditu, Kazetaritza ikasten dihardu Leioan, eta sarritan erakutsi du idazle fina dela. Bertso paperekin, idazlanekin eta ipuinekin ere hainbat sari jaso ditu. Esate baterako, Eibarren, Elgoibarren eta Plentzian, sarritan eskuratu ditu garaipenak. Hala ere, ez du ezkututzen bere poza: «Orain arte alaitzen nintzen, baina ohartzen naiz gero eta ilusio handiagoa egiten didala sariak jasotzeak».

Idazteko grina aldiro-aldiro piztuta eta iraungita izaten duela dio: «Batzuetan, asko idazten dut, eta, gero, bolada batean, ezer ere ez». Sariak grina horri eusteko laguntza ematen diotela aitortu du, eta, aurrerantzean ere, baduela idazkeran jarduteko asmoa. Erraz irakurtzeko moduko idazkiak atsegin ditu: «Bergarara bidali nuen gutuna ere halakoa da; maitasun gutuna da, baina, badirudi, haur bati azaltzeko modukoa dela, oso modu sinplean eta errazean». Ipuin fantastikoak, egutegiak, bertsoak eta gutunak idazten ditu; orain arte ez du mugarik. Eta, aurrerantzean ere, muga gutxi topatzea espero du.

Perfektua zinela uste nuen,
irribartsu eta irribarreak oparitzen beti
baina behin oihu egin zenidan
eta negar egin nuen.
INPERFEKTUA zinen...
eta zutaz maitemindu nintzen.

Zuretzako poema hori. Polita, ezta? Ez nizun maite zaitut eta punto esan nahi. Maitasuna ez baitzait puntu eta apartez gustatzen. Txarra naitzelako maitasuna deklinatzen. Maite zaitut esan behar delako, edo maite zintudan igual, edo maiteko zaitut bestela, per secula seculorum. Eta ez. Zerbait abstraktuagoa da, handiagoa, ezta?

Ibaiak maite ditut nik. Eta txokolatea. Almendrekin. Baina uholdeak daudenean, han, Hegoameriketara-eta jende asko hiltzen denean, edo hemen, eta nire Corsa gorria urak eramaten duenean, ez zaizkit ibaiak gustatzen. Orduan gorroto ditut ibaiak. Ze ibaiak orduan marroiak dira, eta niri ibaiak urdinak gustatzen zaizkit. Edo berdeak bestela. Eta txokolatea... txokolatea jaten asko gozatzen dut nik, munduko plazerrik... bueno ez, baina asko gozatzen dut txokolatea jaten. Baina gero ispiluan nire triparen perfilari begira egoten naiz. Eta orduan gaiztoa da txokolatea. Almendrekin ere bai.

Baina zu... txokolateari bezala kentzen dizut papera zuri. Poliki. Ingurura begiratzuz inork ez lapurtzeko. Baina zuk txokolateak baino paper gehiago izaten duzu kentzeko, eta niri gustatu egiten zait papera kentzea. Polita da. Eta gero txokolatea bezala miazkatzen zaitut, poliki, ez gastatzeko. Eta ondo dago ze zu txokolatea baino handiagoa zara. Eta ez zara urtzen. Bueno, batzutan bai. Baina txokolateak ez nau gero ni miazkatzen. Jo, ze lotsa. Baina zuk esaten duzu nik ez daukadala txokolate gusturik. Ni marrubia naiz. Bai, gorri gorria. Eta gozoa. Baina leku batzuetako zaporea zailagoa da sumatzen eta gehiago miazkatu behar dira leku horiek. Hala esan zenidan. Poliki miazkatu behar direla leku horiek, mihi puntarekin. Eta gero bueltak emanez, zurrunbiloak marraztuz. Eta gero ezpaineakin estutuz... Eta urtu da marrubia. Baina zu ez. Zuk beti daukazu gehiago niretzat, ezta? Ibaiak bezala, ibai urdinak bezala. Poliki hasten zara, xuabe... baina orduan nire urlastera erreka bilakatzen da eta zure erreka ibai eta ibaia itsaso. Eta biok bainatzen gara eta marrubi eta txokolatez betetzen dugu itsasoa. Eta onena da... barkatu baina hala da, ni berriz bihur naitekeela urlaster. Zu ez, jiji, badakit... Jo baina zu txokolatea zara!

Bueno ba hori, zu txokolatea eta ibaiak bezalakoa zarela baina bainarik gabe. Perfektua zara ez didazulako «munduan ezer baino gehiago maite zaitut» esaten. Ez, zuk «maite zaitut, ia ogia beste» esaten didazu. Eta hori ona da, txokolatea (almendrekin) edo ibaiak (urdinak. Edo berdeak bestela) baino gehiago.

Eta hau irakurtzen duzunean esango didazu: «hi flipa flipa inda hao!». Baina nik irribarre egingo dizut (badakidalako arrazoi duzula) eta ea marrubi gehiago nahi duzun galdetuko dizut. Eta erantzun gabe, jaten hasiko zara. Marrubia ona delako. Eta errepikatu egingo duzu. Ahal baduzu. Eta nik ez dizut «maite zaitut», «maite zintudan» edo «maiteko zaitut, per secula seculorum» esango. Marrubia eta txokolatea ez direlako deklinatu behar. Badakizu ezetz.

Marrubiz eta maitasunez,

Zure morena txikia